

Mugatxoan 2010
 Arteleku Donostia-San Sebastián. Ekainaren 14tik Uztailaren 4ra.
 Teatro de la Laboral Gijón. Uztailaren 5etik 18ra.
 Fundação de Serralves Oporto. Irailaren 20tik Urriaren 3ra.

JAMICS FROM +
 NO DECEUCE
 SUNDAY 18:00 (30 H LATE
 JAJANI FESTIVAL
 TWIFESTO
 CHITECTURE PROPOSAL
 BOARD MEETING
 ANTHEMAN

2.en fasea

Mugatxoan 2010 deialdia zuzendua dago arte bisualean, performancean eta dantzan interesatuta dauden eta beren lan prozesua beste batzuekin partekatu nahi duten artistei.

Zure piezak sortzen hasi nahi baduzu, dagoeneko zer edo zer egin baduzu baina obra berriak egin nahi badituzu, ideiarekin bat baldin baduzu baina inoiz ez denborarik ez lekurik izan ez baduzu ekiteko, lanerako egokiera bat eskaini nahi dizugu, non partaide guztiak zure antzeko egoeran egongo baitira. Beraz, programatutako tailerretara ere joan ahal izango zara eta artista gonbidatuen lan prozesuak ezagutzeko aukera izango duzu, proiektu bati ekiteko estrategia desberdinak ezagutzearren.

Parte hartzeko banakako proiektu bat aurkeztu behar duzue, zehazki, proiektu horren prozesuaren fase bat, gero tailerrean garatuko duzuenak; kontua ez da proiektua amaitzea, ikertzeko eta alderatzeko espazioa eta denbora eskaintzea baizik.

Zuen proiektuetan Ion Munduateren eta Blanca Calvoren laguntza jasoko duzue, gainerako parte hartzaile eta gonbidatuekin esperientziak partekatzeko uneak sortzeko eta ekoizpeneko, lankidetzako, partaidetzako eta esanahi sorkuntzako prozesuak eta moduak ikertzeko.

Lan pertsonala egiteaz gain, taldeko tailerretan parte hartuko duzue aurtengo artista gonbidatuekin, Xavier Le Roy eta Gary Stevensekin, lehenengo fasean. Tailerretako lanaren xedea da partekatzea, berrikustea, berregitea eta eztabaidatzea nola eragiten duen prozesuak proiektuen azken emaitzan. Esperientziak eta jarduerak sorraraztea, eta estrategia paraleloak eta ideia bat gauzatzeko moduari buruzko hausnarketak bilatzen dituzten lan ardatzei ekitea.

Egunak	Irailaren 20tik Urriaren 3ra, 2010
Ordutegia	Astelehenetik larunbatera, goiz eta arratsaldeko dedikazio intentsiboarekin. Ezinbestekoa da 2 aste jarraian parte hartzea.
Lekuak	Fundação de Serralves, Oporto.
Parte hartzaileak	Ikusizko artearekin, dantza eta performancearen praktikarekin zerikusia izan eta bere lan prozesua partekatzeke interesa duten pertsonak.
Ikasle kopurua	15.
Izena emateko epea	Uztailak 20, 2010.
Dokumentazioa	NÄren edo pasaportearen fotokopia. Motibazio gutuna. Biografia. Egindako jardueren txostena. 2 asteetan garatuko den proiektuaren edo prozesu fasearen zirriborroa.
Eskabideak aurkeztea	Zuzenean, jarduera gauzatuko den hiru lekuetako edozeinetan edo posta ziurtatuaren nahiz mezulariaren bitartez ondorengo helbidera bidaliz Mugatxoan 2010 Arteleku, Kristobaldegi 14, 20014 Donostia- San Sebastián.
Hautapena eta tutoretza	Blanca Calvo eta Ion Munduate.
Tailerrak	Xavier Le Roy eta Gary Stevens.
Ebazpena	Uztailaren 26ean, hautatuak izan direnei zuzenean jakinaraziko zaie eta zerrenda www.mugatxoan.org webgunean argitaratuko da.
Matrikula	125 €
Erraztasunak	MUGATXOAN arduratuko da Oporton bizi ez diren ikasleei egoitzetan ostatu emateaz, logela bikoitzetan eta gosaria barne dutela. Bestetik, Euskal Herrian bizi diren partaideen Oportorako bidaia gastuak bere gain hartuko ditu.

Informazio gehiago behar izanez gero, ondorengo helbidera jo dezakezu:
info@mugatxoan.org



Lehenago inoiz elkarrekin bildu ez garen 16 lagun bilduko gara, 5 egunean zehar lanean aritzeko. Hasieran, galderak egingo dizkiogu geure buruari, norberak bere praktiken berri eman dezan, etorkizuneko lanen berri. Gainerakoen lanei buruzko galderak ere erantzungo ditugu, baita lan baldintzei buruzkoak eta estrategia eta taktikei buruzkoak ere.

Eztabaidak izango ditugu, negoziazioak izango ditugu, eta plazaratzen diren irtenbideen eta sortzen diren gaien inguruan lan egingo dugu.

Egoerak sortuko ditugu, eta plazaratutako galdera guztiak ebatzen ez dituzten lanak ekoiztuko ditugu.

Baldintza horiek gaindituz eta baldintza horietara itzuliz egingo dugu aurrera.

Eta hori guztia oso orokorra denez, zehaztasunaren bila arituko gara.

Xavier Le Royk biologia molekularreko ikasketak egin zituen Montpellierreko Unibertsitatean, eta 1991az geroztik, dantzari eta koreografo gisa egiten du lan. 1997 eta 2003 bitarte, Podewilen (Berlin), artista egoiliar izan zen. Bakarkako hainbat emanaldietako koreografiak egin zituen, esaterako *Self Unfinished* (1998) eta *Product of Circumstances* (1999) obretakoak. 2000. urtean, Tanz im August Jaialdira gonbidatu zuten Yvonne Rainerrekin *Meeting* obran lan egiteko. Halaber, urte berean, Jérôme Belen *Xavier le Roy* obra egin zuen, 2001. urtean Eszter Salamonekin batera *Giselle* obraren koreografia egin zuen, eta 2003. urtean, *Project* izeneko obra bat egin zuen, 15 dantzarirentzat. *Das Theater der Wiederholungen* (2003) obra, Bernhard Langen opera ere eszenatoki gainean jarri zuen, baita Helmut Lachenmannen musikaz osatutako *Mouvements für Lachenmann* lana ere, iluntzeko kontzertua alegia (2005). Berliner Philharmonikerreko Hezkuntza Proiektuan Edgar Varèserekin *Ionisation* obrako koreografia egin zuen, 40 haurrekin batera. 2004az geroztik, hainbat hezkuntza-programetan parte hartzen du. 2007an Igor Stravinskyren *Le Sacre du Printemps* musika erabiliz, bakarkako koreografia bat osatu zuen. 2008. urtean, musika-keinuei buruzko ikerketan sakontzen jarraitu zuen, eta *More Mouvements für Lachenmann* obra sortu zuen. 2007-2008 bitarte, Montpellierreko Centre Choréographique Nationalen (Frantzia) «artista lagun» gisa aritu zen lanean, hezkuntza-programaren zuzendaritzan parte hartu zuen, eta beste 9 artistekin batera, 6 hilabeteko eta kokaleku bateko proiektu bati ekin zion, lan-baldintza zehatzak miatzeko. 2009. urtean, *To contemplate* obra aurkeztu zuen «In-Presentable-Madriden» eta Renneko The museum of Dance zentruan *Xavier fait du Rebutoh* estreinatu zuen, eta berriz osatu ondoren, PAFen aurkeztu zuen berriz ere, izenburu honekin: *Product of Other Circumstances*. 2010ean *Floor Pieces* obra sortu du Düsseldorfeko Julia Stoscheck Collectionen eta artista lagun egoiliar gisa Art Culture and Technology MIT (Master in Teaching) Programan parte hartzera gonbidatu dute (Cambridge, USA).



Performance praktikoa ikasteko lantegiak, bost saiotan.

Saio bakoitzaren iraupena eta parte-hartzaileen kopurua alda daiteke. Parte-hartzaileek elkarrekin lan egingo dute, ideiak era praktikoa garatzeko, eta elkarri eskainiko diote informazio garrantzitsua, prozesuaren barruko ekintza bezala. Egokia da diziplina guztietako artista eta antzezleentzat; ez da beharrezkoa interpretazio-tekniketan aurretiaz trebatuta egotea. Komenigarria da parte-hartzaileek bost saioetan parte hartzea.

Bost saioetako gaia talde-antzezpena izango da.

1. Elkarri eragitea, sistema itxi bezala. Jokabidea arautzen duten arau partekatuak erabakitzea.
2. Diskurtsoa, egituraren osagarri bezala.
3. Espazio baten mapa marraztea, eta bakarkako egilerik ez duen leku bat gogora ekartzea.
4. Gogo modularrak. Gizabanakoaren jarraitutasunaren zentzu arruntan nahasmena sortzen duten jokaera-arauak zehaztea.
5. Ingurunearekiko elkarrenergina, multzoko erakunde bezala.

Gary Stevens 1984an geroztik ari da arte performanceak zuzenean egiten, bai bakarka bai eta beste artista eta performer batzuekin ere.

And, hamar artistarentzako performance multzo bat da; Madrilén, bertako artistek birsortu zuten 2000. urtean, eta geroago Suitzan eta Brasilén berregin zen. *Here and There* hogeiren bat artista internazionalak egin zuten Serralves etxean eta jardinetan, Oportón, 2002ko Mugatxoan jaialdiaren barruan. Possum Gulbenkian Arte Modernoko Zentroan egin zuen, Lisboan, 2003. urtean. *Flock* obraren burrunba Madrilén eta San Petersburgen barrena entzun zen, 2005ean. *Ape* obrarekin, berriz, testura eta eskenatokira itzuli zen, eta bira internazionalak egiten aritu da 2007an geroztik. *Slow Life* (2003) eta *Wake Up and Hide* (2007) bideo-instalazioak Matt's Galleryn aurkeztu zituen lehenbizikoz, Londonen.

Arte bisualetako Paul Hamlyn saria eskuratu zuen (1998), baita Foundation for Contemporary Performance Arts (New York) erakundearen saria ere (1996), eta Live Art Development Agencyren beka bat (2005). Performance laborategi bat zuzendu du Artsadmin erakundearentzat, 1999tik 2009 arte, eta Slade School of Fine Arts, UCL, fakultateko irakasle irakurlea da, Londonen.

Arteleku, Donostia-San Sebastián

Tailerrak

Ekainak 14 - 18	Ion Munduate/Blanca Calvo.
Ekainak 22 – Uztailak 3	Mårten Spångberg/Tor Lindstrad.
Ekainak 30 - Uztailak 2	Eva Meyer-Keller/Rico Repotente/Sybille Muller.

Aurkezpenak

Uztailak 2		<i>Bauen nach Katastrophen</i> (bideo-instalazioa). Keller/Muller/Repotente.
Uztailak 3	20:00	<i>Entzuten ahal duzue Donostia?</i> . Mårten Spångberg.
Uztailak 2	16:00	<i>Hondamendien ondoren eraikitzen</i> . Eva Meyer-Keller.

Teatro de la Laboral, Gijón

Tailerrak

Uztailak 5-9	Inazio Escudero.
Uztailak 12-16	Itziar Okariz.

Aurkezpenak

Uztailak 10	20:30	<i>Anplia</i> . Inazio Escudero.
Uztailak 17	20:30	<i>Mugatxoan hamar</i> . Dokumentala.

Fundação de Serralves, Porto

Tailerrak

Irailak 20 - 25	Xavier Le Roy.
Irailak 26 - 30	Gary Stevens.

Aurkezpenak

Irailak 24	22:00	<i>Product of Other Circumstances</i> . Xavier Le Roy.
Irailak 30	22:00	<i>Not Tony</i> . Gary Stevens.
Urriak 3	22:00	<i>Mugatxoan hamar</i> . Dokumentala

MUGATXOAN 2010 proiektu elkartua da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Arteleku (Donostia), Portoko Serralves Fundazioa, Gijongo Teatro de La Laboral, eta Entrecuerpos-Mugatxoan Kultur Elkartea dira ekoizleak. Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.



Asociación Cultural y Artística
Pinar 5, 7º B. 20301 Irún.
T +34 943 577842
GSM +34 609 946 180
info@mugatxoan.org
<http://www.mugatxoan.org/>



Kristobaldegi 14. E-20014 Donostia-San Sebastián.
T +34 943 453 662
arteleku@gipuzkoa.net
www.arteleku.net



Rua D. Joao de Castro 210. 4150-417 Porto.
T +351 226 156 580
www.serralves.pt



Luis Moya Blanco 261. 33203 Gijón.
T +34 985 185 594
www.teatrodelalaboral.com

Mugatxoan 2010 *Izenaemate fitxa 2.en fasea*
Irailaren 20tik Urriaren 3ra, Serralves

Izena: _____

DNI: _____

Helbidea: _____

Posta Kodea: _____

Herria: _____

Tel./Fax: _____

e-mail: _____

Jaiotze-data / herria: _____

Lantegia edo ikastetxea: _____